



Anoetako Herri Eskolako ikaslea da Xabat. Oporrak hartzeko irrikan zegoen hau idatzi zuenean; eskolan oso ongi pasatzen duen arren, oporretan gusturago egoten baita.



Xabat Ugartemendia

Anoetako Herri Eskola



Kaixo, ni Xabat Ugartemendia naiz, 11 urteko ikaslea. Anoetako Herri Ikastolan ikasten dut. Nire ikastola Anoeta izeneko herrian kokatuta dago, Olano txirindulariaren jaioterrian.

Ikastolak hainbat zati ditu. Kanpoaldean patio handi bat, euria egiten duenean jolasteko aterpe bat, belardiak, baratzeak eta beste hainbat toki eder daude. Ikastolaren sarreran borobil izugarria dago; bertan gure antzezlanak eta festak egiten ditugu.

Jangela ere badugu. Ni bertan gelditzen naiz bazkaltzen. Ez da oso handia, baina denak sartzen gara. Batzuetan lagun gehiegi elkartzen gara, eta ezin kabituz ibiltzen gara. Janaria ez da izaten oso goxoa.

Ikastolan jende askok ikasten dugu, 280 ikasle gutxi gorabehera. Gehienak oso jatorrak dira, baina badira tartean ere bihurri xamarrak direnak. Irakasleak, berriz, 25 bat dira, batzuk txintxoak, eta besteak, erraz haserretzen direnak; baina, orokorrean, oso ondo moldatzen gara.

Ikasleak ez dira Anoetatik bakarrik etortzen, baita Hernialdetik, Iruratik eta Villabonatik ere. Iru-ran, alboko herrian, badago ikastola txiki bat. Han 2 urtetik 6 urte bitarte ibili ondoren, hona etortzen dira ikastera. Gure ikastolan 16 urte bitarteko ikasleak daude, gero beste ikastola batera joaten dira ikasketak jarraitzera.

Azken egun hauetan, Gabonetarako prestatzen ari gara. Gaur goizean Eguberrietako kanten azken entsaioa egin dugu, abenduaren 24an abesten ateratzeko. Urtero egiten dugun bezala, aurten ere gelaz gela joango gara, eskulanetan egiten dugun oparitxoak besteei ematera. Opariarekin batera, klasean prestatutako bertsoak abestu ditugu. Egun hauek oso gustukoak ditut, lan gutxiago egiten dugulako. Biharko eguna (abenduaren 20az ari da) ere izugarri gustatzen zait, azken eguna da eta jokoak eta txistorrada izango ditugu.

Oporrak hartuko ditugu laster. Ikastolan gustura ibiltzen naiz, baina oporretan gusturago oraindik.

Beno, bada, oporrak ondo pasatu eta urtea hobeto hasi.

